

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Inazio Albizuri Etxaniz

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1928-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Loiolako Torre-Berrosueta baserrian jaio zen 1928an. Hiru anai-arrebatan zaharrena da. Aita Beastein baserrikoa eta ama Torre bertakoa zituen. Eskolan Azpeitiko Olatz auzoan ibili zen eta ondoren "Errementarikoan" eta Azpeitiko maristetan. Gerra garaia gertutik ezagutu zuen; bonben beldurrez mendira ihes egin beharra izan zuten 15 egunez. Soldadutza garaian, Iruñean, Elizondon eta Oiartzunen egon zen. Oñatz auzoko Azpillaga baserriko alabarekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten.

Zintak

AZP-049

- **Proiektua:** Azpeitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-11-17
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Transkribatzailea(k):** Leturia, Ane - Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Plazara tratura egunero

- **Erref:** AZP-049/002
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Plazan egiten zuten tratua; letxugak, tomateak, piperrak... saltzen zituzten. Lursail handiak dituzte. Labrantzarako lur ona zuten baserri inguruan. Garia, artoa eta baba lantzen zituzten. Ganadura ere bazuten.

Transkripzioa

- Ze esango det /esangot/, tratue iten gendun hemen gehiena. Nola plazan

ibiltzen giñen egunero, ta dana, letxugek, ta tomate ta piper ta klase danak, iten [giñuzen] guk. Ta... Lana galanki!

- Terreno haundie zeukezuen hemen ingurun?
- Ba, [nahiko haundikuk] bai. Oñ pixket lagata gaure [berde ipini] ta zea baiño... Oñ 'e [nahiko haundikuk] badauzkeu bai.
- Ta zu umea ziñala, hemen buelta hau dana zuena zan? Hemen inguruko terreno hauek?
- Ez, ez zien, danak errepartidutakuek. Pusketa batzuk bestienak 'e bai ta danak eta, bai. [Holakuk] giñen.
- Hemen, gaiñea, toki ona eukiko zenduen labrantzako, ezta?
- Bai, bai, ona, ona, oso ona. Bestela ez gendun jarriko ona eon ez balie! Onak zeuren ta... Hamen jarri gendun geure denpora guztiyen.
- Ze eitten zenduen, garie, artoa...?
- Gariye lehenon bai eiten gendun guk gariye! Ta artue 're bai. Artue oaiñ 'e bai, e? Artue ta babie. Oaiñ gariik ez deu /ezteu/oain iten. Artue ta babie. Lehenon ganaue eukitze giñuzen, ta ganaue oaiñ dana kendu in giñuzen.

2. Gari lantzea

- **Erref:** AZP-049/003
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:06:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserrriko lanak » Garia
- Baserrria » Baserrriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Garia nola lantzen zuten azaltzen du. Behiekin lurra goldatu, lurra berdindu eta garia bota, area pasatu lurra nahasteko eta horrela etortzen garia. Behiei gurdia eta goldea... jartzen zizkien.

3. Azokako lanak

- **Erref:** AZP-049/004
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:06:13. **Bukatu:** 00:07:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserrriko lanak » Garia
- Baserrria » Baserrriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserrria » Baserrriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Garia egiteko urte sasoi azaroa izaten da. Artoa maiatzean egiten zen. Berdura azokan saltzen zuten. Astearte, ostegun eta larunbatetan joaten ziren azokara. Esnearekin egunero joan behar izaten zen.</p>

Transkripzioa

- Eta... Urte sasoi jakiñekon bat behar izaten zan artoa ta garie itteko? Noiz itten zan?
- Bai, udazkena, udazkena. Gariye iteko zean "noviembre". Oantxe, sasoi hontantxen iten zan gariye. Artue iten zan berriz maiatzan, "mayo".
- Maiatzan.

- Ta... Hoixe, sasoién sasoikue in ber izeten zan.
- Gero, ordun, berdura ta azokan saltzen zenduen.
- Bai, gero [berdurek...], sorue labratzen gendun, gero labrau ta, ipintzen genduen berdurie´re dana, o piperra, tomatie, baiñie, klase danak ipintzen giñuzen. Tratue, egunero tratue.
- Egunero juten ziñeten?
- Egunero ez, gaizki esan det! Juten giñen asteartie, ostegune ta zapatue.
- Hirutan. Hirutan izaten zan azoka?
- Bai. Ta geo bezeruk´e euki giñuzen, ta esniekin egunero jun ber izeten zan, e? Baiñe hola plazaa saltzea ta berdurie saltzea ta astin hiru egunin.

4. Kalera oinez joan beharra

- **Erref:** AZP-049/005
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:07:21. **Bukatu:** 00:08:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Kalera oinez joaten ziren. Baserrí inguruko bideak harri librekoak izaten ziren. Baserriko jeneroa behorra eta gurdiaekin eramaten zuten. Azpeitiko plazara joaten ziren, eta Azkoitian esne-bezeroak zituzten.

5. Tratuak dirua ematen zuen, lana ere bai

- **Erref:** AZP-049/007
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:09:26. **Bukatu:** 00:10:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Plazako azokan saltzen zuten jeneroa. Tratuak dirua ematen zuen, baina lan asko egin behar izaten zen. Sasoién sasoikoa saltzen zuten. Jeneroaren prezioaz hitz egiten du.

6. Litro esnea hiru pezetatan

- **Erref:** AZP-049/008
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:10:53. **Bukatu:** 00:12:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Behi-esnea saltzen zuten Azkoitian: egunean 30 litro inguru. Esne gehiena kale etxetako bezeroei saltzen zien; sobratutakoa, berriz, plazan. Esnea

marmitatan eramaten zuten. Baserria toki lauan egonda, gurdiarekin ibiltzeko egon zitekeen toki onena zen. Litro esnea hiru pezetatan saltzen zuen.</p>

7. Nola biltzen zen esnea

- **Erref:** AZP-049/010
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Esnea eskuz biltzen zuten. Aurrerago makina erabiltzen hasi ziren. Ukuiluan, behi bakoitza bere lekuan lotuta egoten zen. Esnea baldetan jasotzen zuten. Esnea plazara eraman aurretik, neurtu eta iragazkian pasatzen zuten. Bero handiarekin kontuz ibili behar izaten zen esnea ez zoratzeko.

8. Esnari ura botatzeagatik multak

- **Erref:** AZP-049/011
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:15:12. **Bukatu:** 00:16:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Kanpoko inork ez zuen esnea errebisatzen. Ez zen hainbeste kontrol. Esnari ura botatzeagatik multak jartzen zituzten. Nahiz eta bere esnea garestiago izan, berak sekula ez ziola urik botatzen dio.

9. Errotara ilunpean joan beharra

- **Erref:** AZP-049/012
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:19:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

<p>1941-1942 inguruan, etxean ogia eta artoa egiten zuten labean. Astero-astero egiten zuten. Gosete handia izan arren, baserrian ez zuten goserik pasatu. Ehotzen gaizki ibiltzen ziren. Gauetan Guardia Zibila ibiltzen zen. Loiolako Munategi eta Igara-berri errotek lan asko egin zutela dio.</p>

10. Gosetea

- **Erref:** AZP-049/013

- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:19:32. **Bukatu:** 00:20:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Jendea jan eskean ibiltzen zen. Eskela asko zegoen. 1938-1949 urte artean kaleko jendeak gosea pasatu zuen. Miseria ikaragarria zela dio. Baserrian moldatzen ziren, nahiz eta gari pixka bat kendu.

11. Baserriko errenta eta nagusia

- **Erref:** AZP-049/014
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:20:39. **Bukatu:** 00:21:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko errenta dirutan ordaintzen zuten. Baserriko nagusia Azkoitikoa zen. Nagusi ona eduki zutela dio. Gariaren prezioa nagusiak jartzen zuen.

Transkripzioa

- Etxeko... etxea zer zeukezun errentan?
- Bai, gu errentan.
- Bai, eta errenta pagatzeko're beharko zenuen...
- Bai... errentie pagatzen gendun ta...
- Baiño esan nahi det garie o eskatzen zizuen... errentan...
- Ez, ez ,ez, ez... diruten pagatzen gendun guk.
- A, bai?
- Eta... puf... hola ibiltzen giñen... geuk e...a hola pixket... asko ez zebezen kentzen, baiñe... nausiyek asko ez ziun kentzen, baiñe errentie harexekin pagatzen gendun, eta gero, beste diru pixket'e emate giñon ta... errez ibiltzen giñen harekin.
- Hemengo nausie nungoa zan?
- Axkoitikue o... Irizar eo... esaten ziyoen.
- Aaaa...
- Ta... nausiye ona auki gendun, eta ez ziun guri ezerre... ez giñuzen molestatzen gu harek...
- Beak eskatutakoa ondo eman ezkeo beak [...].
- Ez harek... geo ze iten zun... gariyek ze iten zun, estaduek gariye jiyotzen baldin bazun, hemen'e jiyo iten ziun. Ta hola. Ez giñen gu geuk... ez gendun guk geuk nahi gendun preziyuen ta ez, ez... harek ipintzen zun.
- Beak jartzen zun?
- Bai, ta hantxe errendiu ber. Gariyekin te ez giñen gaizki ibiltzen ez, ogiye ibiltzen gendun guk... ez gendun sekula ogiye faltaik izen, baiñe... jo... kalien ta giro zan ba ordun...

12. Herrian hiru-lau auto besterik ez

- **Erref:** AZP-049/015

- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:21:55. **Bukatu:** 00:22:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Inguruan ere baseritik bizi ziren. Ez zuten ez bizikleta, ez eta autorik ere. Azpeitia osoan hiru-lau auto omen ziren. Azkoitian ere beste horrenbeste izango ziren.

13. Jaiegunetan Loiolara jolasera

- **Erref:** AZP-049/016
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:22:27. **Bukatu:** 00:24:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Jaiegunetan inguruko baserrietako umeekin Loiolan ibiltzen zen. Pilotan, futbolean, zapoketan, harrapaketan... ibiltzen ziren 15-16 urtera arte. Baloi gutxi izaten omen zen; trapu mordoila elkar jositako pilotaren bat. Komentu barruan frontoia zegoen, baina ez omen zuten sartzen uzten.</p>

14. Eskola eta erlijioa

- **Erref:** AZP-049/017
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:24:03. **Bukatu:** 00:24:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

Laburpena:

Eskolan Olatzen, Errentarikoan eta maristetan ibili zen. Garai hartan bi komunio egin behar izaten ziren; komunio txikia eta handia. Azken hori 10-11 urterekin egiten zen.

15. Maristak eta Olatzeko eta Errementariko eskolak

- **Erref:** AZP-049/018
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:24:57. **Bukatu:** 00:28:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Olatzen eskola non ematen zuten azaltzen du. Maistra azpeitiarra zen. Garai hartako ikasketa dotrina zela dio. Errementariko eskolan ere horrela omen zen. Euskaraz ikasten zuten. Erdaraz ez zuela hitzik ikasi dio. Bakoitzak bere

liburua izaten zuen. Katona deituriko liburua erabiltzen zuten, irakurtzen ikasteko. Neskak eta mutilak batera ikasten zuten, baina banatuta egoten ziren. Maristetan irakurtzen gehiago ikasi zuen.

16. Loiolara bonbak botatzen zituzten

- **Erref:** AZP-049/020
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:28:29. **Bukatu:** 00:30:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Zazpi urte zituen gerra denboran. Loiolara bonbak botatzen zituzten, eta beldurrez baserrian egon ziren. Mendira, lehengusuen etxera joanda ere egon ziren. Txapel gorrien tropak pasatu zirela gogoratzen du. Soldadu asko pasatu omen zen; 4.000 mutil inguru.</p>

17. Lehengusuen baserrira, bonben beldurrez

- **Erref:** AZP-049/021
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:30:29. **Bukatu:** 00:32:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Bonben beldurrez, ihes egin zuten baserritik. Lehengusuen baserrian, Agiten, 15 egun pasa zituzten. Baserri hori bakartuta zegoen. Beren baserrira ez zuten bonbarik bota, baina Loiolara bai. Loiolan milizianoak egon ziren, eta bertan zuten janarien gordailua.

18. Ganadua konfiskatzen zuten

- **Erref:** AZP-049/022
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:32:18. **Bukatu:** 00:32:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Baziren ganadua kendu zieten etxeak. Beraiei ez zioten ganadurik kendu. Loiolan ez zen txikiziorik izan, pasatu bakarrik egin ziren.

19. Loiolan bi taberna

- **Erref:** AZP-049/025
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:35:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Loiola inguruan bi taberna ziren; Amenabarrekkoa eta Kiruri. Orduan tabernan jateko ez zegoen dirurik. Tabernan ez zen aukera handirik egoten. Mutil koskorra zen eta ez zuen tabernara joateko dirurik.</p>

20. Mendi-erromeriak

- **Erref:** AZP-049/026
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:35:39. **Bukatu:** 00:36:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Bere gaztaroan Loiolan ez zen erromeriarik egiten, baina mendi-erromeriak izaten ziren. Martite, Urrategi, Kurutzeta, Aizpurutxoko erromeriak aipatzen ditu. 18-19 urterik hasi zen erromeriara joaten. Erromerietara oinez joaten ziren, pentsatu ere ez autoz joan zitekeenik. Salto batzuk egin, ahal zuenak neska-laguntza egin... bat ere txarrik egin gabe bekatua omen zen.

Transkripzioa

- ... Hor'e erromerik eitten zan Loiolan? - Ez, mendi erromeyek bai. - Nun? - Mendiye. Tokiye-tokiye Martiteta, Urrategi te Kurutzeta ta, Aizpurutxo ta holakuek tokiye tokiye tokiye... - Zuek hauntza juten ziñaten? - Bai, hemezortzi urte alleau zizkunien bai, hemeretzi. Orduen, bai, juten ginen, baiña harta bitartien dana hementxe. - Hemezortzi urtekin kotxeik bai? Ez, arten ez... - Bai, kotxiñek... ezta iñok'e! Ezta... guk kotxiñe... guk kotxiñe ekarri gendule... - Mendi sail earrak oinez bai ordun, erromeira juteko? - Hoixe ba! Ezta gaiñea, ezta gaiñea... dana holaxe zala pentsaute! Ordun iñok inbirik ez gaiñea kotxeik eta... ezta... [bazenkiye etzeune] ekartzeik eta kotxeik eta... iñok ba al zaken ba diruik ordun!?... Ta hoixe, erromeye in de ta hantxe, ze soñue jotzen zen da... salto batzuk ingo geñizen da... geinontzien, al zunek neska-laguntzea ta, bestiek berriz, ezin zunak [segiu] hantxe. - Bai? Ez al zan pekatu hoi dana? - Pekatue... ordue pekatu asko zan e!? Bajina bat pekatu indekuek gea gu... jesus!! Baiñe.. - Eze txarrik eiteke? - Bate txarrik eiteke, pekatu! - Dana pekatu? - Dana pekatu.

21. Aizpurutxoko erromeriara bizikletan

- **Erref:** AZP-049/027
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:36:56. **Bukatu:** 00:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Aizpurutxon dantza lotuan egiten zuen. Aizpurutxon bi zati ziren; batean,

dantza lotuan egitea libre zen, eta Azkoitiko partean, berriz, ez. Bizikletak alokatuta joaten ziren erromeriara. Orduko bi erreal kostatzen zen.</p>

Transkripzioa

- Dantza lotue ta...
- Eneee... bai... eiten gendun, bai, guk orduen dantza lotuen Aizpurutxon ta... Aizpurutxon [...] esangoizut, hau Aizpurutxo hamen dantzan itie libre ta hamen, hau Axkoitiko partie, ta hamen ez zaon, hamen pekatu e... mugarriye.
- Xelebreyek...
- Xelebreyek enee... Ta hor ibiltzen giñen... Bizikleta... bizikleta zaharren batzuk alkirretiken o hartu o inde ta, Azpurutxo jungo giñen ta...
- Alkirreko bizikletak eoten zian?
- Bai, eoten zien orduen alkilerrien.
- Nun eoten zian?
- Bat hamentxe Uitti Azpeitiyen, eta Azkoitiyen, berriz, Gabino esateziyen: bi alkilerreko egon zien ta. Bizikleta mordoskie aukitzen zeban hayek hola alkilen, ta handitxi sostenitzen zien hayek'e... beti... ez zan... orduko bi erriel o kostatzen zan ordun zea... bizikletan ibiltzie.
- Orduko bi erreal?
- Bai... hayek falta, ordie!
- Eta zenbat denborako alkilatzen zenuen?
- Ze... [...] ordu paren bat, hiru bet o ze pasako giñuzen... zeara junde... erromeire junde ta.
- Gero bueltako garayen, atzea bertan...
- Atzea bertan laga ta pagau... zea... bi erriel hoyek eta...
- Osea ke gauez'e zabalik eoten zan?
- Eeez, ordun gabien... etzan zabalik eoten. Orduen hamarretan danak ixten zin.
- A, bueno, baiño erromeritik zuek goizo...
- A, gu etortzen giñenien? Bai, gu... guri alperrik esatie izeten zan... zortziretako ekarrizu o beatziteko ekarrizu o... Gustoa ibiltzen bagiñen beanduo igual ta... Hola ibiltzen giñen.

22. Argia eta ura baserrian

- **Erref:** AZP-049/031
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:46:23. **Bukatu:** 00:48:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Beti ezagutu ditu argia eta ura baserrian. Argindarra Azpeitiko Orbegozonetik iristen zitzaien, baina indar gutxi izaten zuten. Hilean 12 pezeta kobratzen zien. Argia garestia zen. Uraren faltarik ez zuten izaten inguruan. Etxe barruan ura 1942an jarri zuten.

23. Uholdeak etxe aurreko zubia bota

- **Erref:** AZP-049/032
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:48:23. **Bukatu:** 00:50:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Etxe atarian dagoen zubia 1954an egin zuten. 53an izugarrizko uholdeak izan ziren, eta urak zubia bota zuen. Gero, estatuak egin zien zubia, eta 44.000 duro kostatu zen. Urak etxe atariraino iritsi ziren. Soroetan kalte handiak egoten ziren.</p>

24. Soldadutzan zaldiak zaintzen

- **Erref:** AZP-049/033
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:50:41. **Bukatu:** 00:54:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>16 hilabete egin zituen soldaduskan. Iruñean, Irunen, Oiartzunen, Beran eta Elizondo ibili zen. Ondo ibili omen zen soldadu zen bitartean. Ez zuten kolperik jotzen, eta ez zuten goserik eta egarririk pasatzen. Soldadutzan zaldiak zaintzen ibili zen. Dirua eman beharrean zigarroak ematen zizkieten, baina berak ez zuen erretzen.</p>

25. Soldadutzako kontuak

- **Erref:** AZP-049/034
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:54:27. **Bukatu:** 00:55:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Ez zen ziegan egon. Goserik ez zuen pasatu. Etxera joaten baimena izan zuten. Soldaduska ondo bizi izan zen.</p>

26. Andregai kontuak

- **Erref:** AZP-049/035
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:55:42. **Bukatu:** 00:58:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Sekula zitzaion kalean ibiltzea gustatu, baina urtea bitan joan eta orduan aurkitu zuen andregaia. Zortzi egunean behin elkartzen ziren. Andregaiari etxe-laguntza egiten zien.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com